

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure funtsezko elkarteak hauek izango dira:

- **ARAVI:** Tailerrean material asko behar da, horretarako lantegirako behar den material guztia inguruko enpresa honetan erosiko da, bai erremintak eta utilajeak.
- **ROBOLAN:** Ingeniaritza robotikoan lan egiten duen enpresa bat da, eta haien sistema robotizatuei esker gure produktuen mugikortasunaren parte izango dira.
- **JUBEDI:** Enpresa honek plastiko birziklatuekin lan egiten du, eta diseinatutako mando guztiak enpresa horren materialarekin fabrikatuko dira.
- **LANTEGI BATUAK:** Erakunde honek, elbarriekin mantenu lanak egiten dituzte eta beraiek erabiltzen dituzten ibilgailuak, langileen premien arabera egokituko dira.
- **IRIZAR:** Euskal Herriko enpresa garrantzitsu honek sortzen dituen autobusen eraldaketak egingo ditugu. Enpresa horrek autobusak saltzen ditu maila nazionalen eta internazionalen, eta merkatuan zabaltzeko aukera egokia da halako enpresekin lan egitea.
- **IURRETA LHII:** Ikastetxe honi esker, enpresa sortzeko aholkuak jaso ditugu, eta bertan prestatu gara, eta horregatik, bertako automozio eta robotikako ikasleei gure tailerrean praktikak egiteko aukera emango diegu.
- **KUTXABANK:** Administrazio finantzarioan parte hartuko duen entitatea izango da eta banku honi kredituak eskatuko dizkiegu.
- **SARE SOZIALAK:** Web-aren, Instagram-aren eta Facebook-aren bitartez gure kooperatibaren marketing-a egingo dugu. Enpresaren zerbitzuen berri ematen eta bezeroen zalantzak argitzen.
- **GAZTEA ETA EITB:** Proiektua indarra hartzeko, kanal hauetatik promozionatzea erabaki dugu, inguruko kanalak baitira.
- **BIDAIDEAK ELBARRIEN EUSKAL ELKARTE SOZIAL:** Elkarte horri esker, zein egoeratan dauden ikusi ahal izango dugu, eta ahal dugun guztian lagunduko diegu. Horrez gain, egiten dituzten hitzaldietara joango gara eta elbarriei laguntzea haien beharrak zeintzuk diren ikusteko balio izango digu.